


Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urtarrilak 8 / III. urtea / 57. zenbakia



Petilla, Aragoiko irla nafarra

Erdi Aro minean, herriak eta biztanleak errege eta erresumen ondareen zatiak baino ez zirenean, egoeren eta jabeen indarren arabera nor edo noren morroi, izan zen 20.000 marabediko bere zorra kitatu ez zuen errege aragoiar bat. Bere kalterako, zorra ez zeukan edozeinekin, Antso Azkarra Nafarroako erregearekin baidzik, eta horren truke harkaitz baten azpian zegoen Petilla —bere Baztanekin— izeneko herria galdu zuen. Mendeetan zehar egin izan dute aragoiarrek saio franko lurraldea berreskuratzeko, baina petillarrek Nafarroaren babes eta laguntza izan dute beti. Ramon y Cajal bertan jaiotako Nobel saridunak, bisitaldi batean, «arranoentzako habia eta gizakumeentzako purgatorioa» deitu zuena herri txukuna da gaur egun, berritua, baina bertan gelditzen diren biztanleak (hemezortzi) ez dute ez indarririk ez gogorik herria bizteko. Etxe eder eta kale hutseko herria da Petilla, uharte nafar bat Aragoiko erresuman. Luze gabe desagertu daitekeen uharte, baina.



Venancio Murillo, Petillako alkatea, udalaren aurrean. A. BARANDIARAN

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Aspaldidanik aitor egin zion bere gorrotoa Oteizari, eta egunak aurrera joanda ere, maixuarenganako gorrotoa motelduz joan beharrean, bere hartan jarraitzen zuen, bat ere urfitu gabe; bizirik segitu ahal izateko kemen bihurtuta bezala. Norbait gorrotoz gorrotatzeko, beharrezkoa omen da, aurretik eta grina bereaz, maitatu izana, eta ederki asko moldatzen zen Urli bi sentipen hauen joan-etorrian. Mendekati ere bazen baiña, zer mendeku edo nola mendekatu ezin asmatu zebilenez, ezin zezakeen irudikapenez soilik gozatu, era bateko zein besteko gaiztokeriak irudituz oriotarraren kontra.

Hasiera batean ez zion garrantzi haundirik eman Vitoria-Gasteizetik zetorren notiziari, Inurrieta delako pintore batek Agustin Ibarrolak kalean paraturik zeukan eskultura bati eraso zionekoa. Txepelkeria iruditu zitzaion ekintza, eta txepelak, egilea eta beronen aldeko lagunak. «Diru-iturria moztu dizuete eta ernegaturik zaudete oso, izorrai!». Garbi zegoen, bestetik, Inurrietak ez zuela Ibarrola estimatzen, ofizio bereko lagunaren artean itsuskeria baita halakoak egitea.

'Egin' egunkariko eskutitza irakurtzen zuen artean, mendekurako ordua iritsia zegoela somatu zuen Urliak, eta egia esanda, ez zuen burua gehiegi urratu behar izan, urtearen azken ondarreran egingo zuena doi-doi antolatzeko. Nor eta, Oteiza bera agertzen baitzen Inurrietaren alde, beronen jarduna goraiatuz. Gorroto berekoak ziren biak Gasteizko agintariekin, eta etsai beraren aurka altxatzen zuen bere ahotsa Altzuzako agureak. Zorionetan zegoela konprenitu zuen berehala: min egingo lioke, Oteizak aurrean jarritako argudio eta armak berak erabiliz.

Lesakatik gertuko Agiña nekropoliaren burutu zuen faena, Aita Donostiaren omenez bere etsaiak egindako hilarria puskatuz. Baina Urliarena ez zen, demagun, gure kaleetan maiz egiten diren ganberrada horietako bat bezalakoa, eta horregatik, Inurrietak eta bere aldekoek egin zuten modu berean, Urliak ere azalpen batzuk utzi zituen ondoan, harena ere ekintza sinbolikoa zela adierazi nahiean, herriak jakin zezan kulturaren mesederako zela esanaz, finean.

Dena den, xehetasun inportante bat atzendu zuen Urliak: bere obra haren egiazko izenaz izenpetzearena. Ezen, holaxe egin izan balu, parada eman bait ziezaiokeen besteren bati, eta dagoeneko, beste artelan bat suntsiturik izango genukeen, hola, gorroto eta bekaizkeriaren katea *sine die* luzatuz...

Guzti horiek eta besterik ere, artistak dira, hau da, Arte Ederretako sentibiltate eta dohain berezirik daukaten pertsonak, gure hoñdatzearen mailarik preziatuenak. Ars est celare artem?

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Tafallako Argazki Zaharren erakusketa ikusgai dago datorren igandea arte, urtarrilak 10, bertako Kultur Patronatoak antolatuturik. Argazkiak herriko erakusketa aretoan ikus daitezke.

Daniel Merino pintorearen lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan. Bodegoiak eta konposizioak ikus daitezke 31a arte. Astegunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara dago zabalik.

IKASTAROKAK



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatuturik. Ordutegia 9.30etatik 13.30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialekin 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

Eski alpinoren ikastaroak antolatzen ditu Nafarroa Kirol Elkarteak, larunbata eta igandetan, Candanchun. Bihar, urtarrilak 9, hasiko da lehena, eta eguneko bi orduz luzatuko dira, zortzi egu-

ERRAN DUTE

Hemendik aurrera ez dut ez bisitarik ez elkarrizketarik nahi, neure borondatez isolatuko naiz».

Jorte Oteiza
Eskultorea

«Lautier izan da torneoren mailarekin batera egon den bakarra».

Alvaro Ablanedo
Nafarroako Xake Federazioko burua

«Erregea, normalean, nere emaztea izaten da».

Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea


«Erregeekin, paso egiten dut. Eta ez da modernoa izateagatik».

Felix Taberna
Iuko burua

Erronkariko Navarzatón

Ibilbide hau, Nafarroa zapal-tzen duten azken hartzen eremu-eremuetatik gertu —azken aztarnak bertatik ez oso urrun dagoen Urralegiko amildegiaren aurkitu izan dira— zaila da, baso-eremuetatik. Zonaldearen jatorrizko begetazioa haritzak eta arteak izango ziren, baina pinudiak, hasieran tantaka, nagusitu dira erabat inguruan, bertakoen pozarako, hala ere, beste garaie-tan errentagarriagoak baitziren.

Erronkari herritik atera, Gaztelu auzotik barna, Navar-zatorra daraman bideari jarraitu beharra zaió. Hau da Erronkari-ko ibar osoan hutsik gelditu den toki historiko bakarra. 1085an Antso Ramirez erregeak bertako eliza Leireko monastegiari eman zion, ibarreko beste batzuekin batera, eta horrek izu-garrizko oposizioa sortu zuen herrian. XIII mende inguruan geldituko zen hutsik eta ez da



agertzen Erdi Aroko kronike-tan. Bertan dagoen San Sebastian basiliza auzolanean kon-pondu zuten erronkariarrek.

Bertatik ezkerretik datorren

bidea hartu behar da, Garde eta Burgi bitarteko errepidera hel-du arte. Hor, Gardeko amilde-giari jarraitu behar diogu, Eska ibaiak sortua.

netan. Bazkideentz 8.500 pe-zetan emango dituzte, eta bes-teentz 9.500 pezetatan. Era be-rean, fondoko eskiaren ikastaroa ere eskaintzen dute, Belagoan, Erronkariko Eski Eskolaren la-guntzarekin. Lau ordu eguneko hiru igande jarraietan.

Dantza Afro ikastaroa hasiko da datorren astelehenean, urtarrilak 11, Nafarroa Kirol Elkarteak

antolatuturik. Asteke bi egunetan izanen da, astelehena eta aste-kenetan. Apuntatu nahiez gero, Elkarteak Jarauta kaletan duen egoitzara jo behar da.

MUSIKA



Oskorri musika taldeak bi kontzertu eskainiko ditu gaur, urtarrilak 8, Iruñeko Gaiarre Antzokian. Musika saio hauetan 'Bardok hamahiru' diska berria aur-

keztuko dio publiko naparrari. Lehenengo kontzertua arratsaldeko 8.00etan izanen da, eta bigarrena gaueko 10.30etan. Oskorriko zazpi musikariak gain, Kepa Junkera trikitilari eta Iruñeko Gaitarien laguntza era izango dute. Sarrerak 1.500 pezetatan salduko dituzte.

IBILALDIAK



Alaitz Mendi Elkarteak ibi-

ASTEKO PERTSONAIAK

Joel Lautier



Xake Jokalaria

Egunotan izan den Iruña Hiria hirugarren Xake Txapelketan Frantziako Joel Lautier 17 urteko Maisu Handiak irabazi berri du, nahiko erraz gainera, txapelketa bukatu baino lehen garaile baitzen. Abenduko 26an hasi zen torneo, eta zortzigarren erron-darako irabazlea zen Lautier, Damljanovic Maisu Handiari irabazi ondoren. Frantziarrak garbi aski erakutsi du maila handiko maisua dela gaur egun, eta azkeneko partidaren irabazle suertatu zen, Alfonso Romero katalanaren aurka. Berak adierazi zuenez, «nik irabazteko jo-katzen dut».


Baltasar



Orienteko Erregea

Urtero bezala, herenegun hur-bildu ziren gure herri eta hiri-rietara Orientetik datozen hiru Erregeak, Gaspar, Melxor eta Baltasar, aldeztu aurretik eskatu-tako opariak ekartzera. Iruñean arrakasta handia izan zuten, arratsaldeko zazpietan iritsi eta bi ordu baino gehiago ibili ziren bertako kaleetan. Hiruek haurren mirespena lortzen dute, begiak zabal zabalik dituztela ez dira hotzaz ohartzen, erregeen musua lortzen duten arte, baina beltzak jaso ohi ditu haurren estimazio handiena beti. Dagoeneko, Orienteko bidean izanen dira, gartzetxoaren ilusioa bete ondoren.

Eduardo Txillida



Eskultorea

K ribia Iruñeko arte galeriara bisita egin zuen asteartean eskultore gipuzkoarrak, eta bertan azken egunotan euskal kultura astindu duen polemikaren inguruan bere iritzia azaldu zuen. Bere ustetan, Oteiza eta besteen arte lanen suntsiketa «astakeri bat» da, eta erasoan egileei «zergatik egiten zuten» azaltzea eskatu zien. Txillidak galeria honetan dituen lanak grabatuak dira, galeriak berak eta Iñaki Txillida bere semeak aukeratutakoak. Eskultoreak adierazi zuenez, hori da azkenotan burutzen ari den lana «leku guztietan eskatzen baitidate».

laldi bat prestatu du datorren iganderako, urtarrilak 10, Uxueko mendiak, Txutxu gaina eta Galipentzu zeharkatuz. Irteera goizeko zortzietan izanen da Farrolatik, eta apuntatu nahiez gero, Rafael tabernara jo behar da.

ANTZERKIA



Kilkarrak antzerki taldea arituko da gaur, urtarrilak 8, Azedon, VII. Jardunaldi Kulturalen ekitaldien barruan. 'Fuera de quicio' izeneko lana antzetzuko dute gaur arratsaldean. Jardunaldi hauek bihar bukatuko dira, hau-erendako jai batekin.

La Barca antzerki taldeak obra bat eskainiko du bihar, urtarrilak 9, Korteko Retegi pilotalekuan. Lana gaueko 10etan hasiko da, eta Buñueleko talde honek 'No le busques los tres pies al alcalde' izeneko obra antzetzuko du. Ekitaldi hau bi herri hauen artean egiten ari diren elkartruke kulturalaren barruan dago.

ZINEMA



'Cyrano de Bergerac' izeneko pelikula eskainiko dute bihar Lizarran, arratsaleko 8etan 'Cinefilos anónimos' taldeak antolatuta, Kontserbatorioaren aretoan botako dute filma hau, aurreko guztiak bezala. Sarrerak 200 pezetatan salduko dituzte.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

HERRIZ BERRI

Altsasu

Santa Agedako errege goiztiarrenak

A. UNANUE / ALTSASU

Egun batez bada ere, Altsasuk Europa osoak bezainbeste errege ditu. Ekialdetik etorritako hirurak gutxi balira, urtarrilaren 6an beste bi izendatuko dituzte, Santa Agedakoak alegia. Aurten, gainera, inoiz baino goizago irten zuten.

Jose Manuel Goikoetxea alkatea eguerdiko hamabiak jota hasi zen karta sorta nahasten, Udaleko aretoan bildutako 49 gazteen aurrean. Kartak banatzeari ekin eta, taka, hirugarrenean atera zen lehen erregea, urrezkoa hain zuzen. Zorionekoa, edo zoritxarrekoa bere aurpegiaren itxuragatik, Pablo Larraia San Roman 17 urtekoa izan zen. Bigarren erregeak ere ez zuen luzaroan itxaron eta Luis Javier Perez Kanpioni suertatu zitzaion.

Usadioari jarraiki, Luis Mari Lopez atzo bertan hasi zen aurtengo kintoen trebatze lanetan. Atzodanik, eta otsailaren 3ra arte, gazteak gauero elkartuko dira herriko pilotalekuan zortzikoa eta jota dantzatzeko ikasteko. Luis Mari dioenez, «tristea da mutilak dantzatzeko irakatsi beharra, gutxi dantzatzeko dela esan nahi duelako, baina halaxe da». Santa Ageda egunean lehen erregea aurrea aterako da dantzara, beste erregea atzean duela, eta azken dantza ere berak agurtu beharko du. Ez da hori bere betekizun bakarra, ordea. Diru kontuak ere bere ardura izango dira, herriko plazan jarritako ardo kupela zaintzea bezala. Bigarren erregeak,



Aurkeztutako 49 gazteak, Udaletxearen parean.

OSKAR MONTERO

berri, opilak jaso beharko ditu.

Luis Mari gogoratu duenez, sasoi batean herriko jostunek egiten zituzten opilak. Haatik, denborak aurrera egin ahala jostunak gutxitzen joan ziren eta neskak mugitu ziren orduan. Azken urteotan beraiek egin dituzte opilak eta gainontzeko lanetan ere lagundu ohi dute. Hori dela eta, partehartze handiagoko eskatzen dute kintoen jaietan, ez baita itxurazkoa diru biltzetan laguntzea eta parrandan, berriz, begirale soilak izatea. Pablo Larraia auziaz galdetu ziotenean, gaia ez zuela ukitu nahi esan zuen. Errege guztiak bezala, herritar xumeen polemiken gainetik da goela dirudi.

Bertakoek diotenez, Santa

Agedako erregeen usadioa «betidanik» izan da Altsasun. Jakina noizbait jaiotakoa izango dela, baina inork ez du gogoratzen noiz. Gerra Zibilaren aurretik egiten zen eta, 1936. urtean etena ezagutu bazuen ere, 1945ean ofizialtasuna berreskuratu zuen. Bixikeria gisa, 1947ko kintoen Santa Ageda bi aldiz antolatuta zutela kontatu digu Luis Mari, «alkateak horrela agindu zuelako». Agurtu aurretik zera argitu nahi izan zuen altsasuarrek, «kintoenak ez daukala zerikusirik soldadutzarekin. Zozketara ez dira agertzen soldadutzara doazenak, adin handia betetzen dutenak baizik». Eskerrak, bestela intsumiso garai hauetan jai gutxi izango genuke Santa Agedan.



Pablo Larraia. OSKAR MONTERO

Bera

Sokatira txapelketa etzi

A.U. / BERA

Euskal Herri osoko hamazazpi talde ariko dira igandean Beran egingo den sokatira txapelketan. Lehiaketa goizeko hamaiketan hasiko da Eztegarra pilotalekuan eta, ohi denez, sarrera dohainik izango da.

Mutilak, hamaika talde, 640 kilokoan ariko dira; nesken zazpi taldeak, berriz, 580 kilokoan. Jakina denez, Berako neska taldeak ez du maila honetan jokatzen, 480 kilokoan baizik. Beraz, beratarrek ez dute igandeko txapelketan parte hartuko, bai ordea hilaren 17an Abadiñon (Bizkaia) egingo den saioan. Abadiñon 480 kilokoan ariko dira neskak eta 600ekoan gizonetakoak.

Berako taldeak ez du parte hartuko igandean, 480 kilotan aritzen baita. Beratarrek hilaren 17an edukiko dute beren indarra erakusteko aukera, Abadiñon (Bizkaia) egingo den txapelketan.

Etziko txapelketa liga sistemaz jokatuko da. Horrek esan nahi du ez dela kanporaketarik izango. Ligak hiru jardunaldi ditu eta osotara puntu gehien lortzen dituen taldea izango da irabazle.

Hortxe ba Euskal Herriko punta-puntako sokatira taldeak ikusteko parada, herritik ere irten gabe.



Euskal Herriko sokatira talderik hoberenak izanen dira Beran. J. LACALLE



ARRUAZUko gazteek 'ur berriko' ohitura berreskuratu dute, 75 urteko etenaren ostean. Euskaltzale hauek bertako zaharrek hitz egin, kanta eta koplak zaharrek ikasi eta, beharrezko egokitzapenak egin ondoren, Urte-zahar gauean kalera irten ziren usadioa betetzeko. Horrela, hamabiak jota Iturgain izeneko iturritik buztinezko pitxarretan ura hartu eta ura edanez eta koplak kantatuz herri osoan zabaldu zuten ur berriaren mezua.

GOIZUETAK txapela eraman zuten herri kiroletako txapelketan. Herri arteko I. txapelketa Zumarragan egin zen, joan zen larunbatean, eta goizuetarrek onerako direla erakutsi zuten, Segurakoen aurretik. Finalean 50 parekatuak ibili ziren gipuzkoarrek eta nafarrak, baina helduen partidua Goizuetaren aldeko emaitza erabaki zuen (22-21).

KORTESko herritarrek erantzun ezin hobea eman zioten bertako gazteek HIESak jota daude gaitxoaren alde antolatuta zuten jaialdia-ri. Festa igandean izan zen, eta bertan mila lagunetik gora bildu ziren, eskuzabalak gainera. Antolatzaileen aurrikuspen guztien gainetik, 326.000 pezeta jaso zituzten, borondatezkoak, sarrera dohainik baitzen. Azpimarratzekoa da, Carmen Bellidoko zaharrek bihotz handia erakutsi zutela, milana pezeta jarri zuten eta beren poltxiketok.



BURLATAko Izquierda Unidari bertsoak aterako dizkiote, nahiko barregarri geratu baitzen astelehenean. Burlatako Udalak bizi duen egoera nahasia dela eta, bertako IUko taldeak prentsaurrekoa eman zuen Iruñean, gainontzeko alderdiei «adostasuna» eskatzeko. Gero jakin ahal izan zenez, ordea, atez kanpo aldarrikatzen duten adostasuna ez dute beraien etxean lortzen, egun beran Daniel Dallo IUk Burlatan zuten zinegotzi bakarrak dimisioa aurkeztu baitzuen.


BARAÑAINgo Udala Burlatakoaren pareko dabil, denak haserre eta elkar ulertu ezinik. Nafarroako Kontu Ganbarak irregulartasun anitz antzeman zizkion Gregorio Clavero alkate sozialistaren jardunari eta, ondorioz, giroa arras zakartu zen. Oposizioak alkateari esplikazioak eskatu bazizkion ere urteko azken plenoan, Claverok entzungor egin zion eskaerari, erantzun guztiak prentsan agertu dira relatu gudiak.

Gazteendako Zokoa

Buztanikara zuria

Motacilla alba

Abereen inguruan
Edonon gustoko habia
Hirietan ugari



BASAJAUN

Orain arte egindako ibilbidea laburra izan arren, ez da zuzena sail honetan izan dugun hutsa. Lurraren birika, bertan dagoen erreserba animal eta begetal handiena, gizakumerik ikusi ez duen milaka baino gehiago animala espezieren paradisia, Far West-en zinema ekoizleei hainbeste diru eman zien sukarrak jota dago: urrearen sukar madarikatua. Amazoniako oihana minbiziak jota dago!

Lurraren zonalde zail honetan faktore frankok daukate eragina, baina bakar bat hartuko dugu kontuan, gure lotsarako, gizakume garen aldetik, balio dezan behingoz —hala izanez gero, helburua betea genuke—. Oihana minbiziak jota dago, lurraren arnasketarako bideak ezezik, birrikak ere usteldu dituen minbizi, alegia. Hauek 'gizakumea' deitzen zaion minbizi horrek —gaiztoena baita— jotzerakoan, koman izango da betirako. Azken hamar urteetan, urrea akatzen ari da oihan zoragarri eta ugari hau. Bere sustraietatik minerala kentzeko, bertan lan egiten duten 600.000 *garinpeiroak* —XX mendeko esklaboak— bide eraginkorra erabiltzera behartzen dituzte: ibaiak eta eguratsa. 1980 eta 1987 bitarte, pozoi honetatik 1.800 tona bota ziren Amazoniako ibaietara. Sekulan eskatu ez duen eutanasia baterako txerto hilgarria jarri zitzaion gure lurraren zainean. Eta ez dago diru madarikatuaren truke bizitza eta garapena galerazten duen droga ematen duten mertzenari horiek bezain gauza arbuigarrik.

Txori herritarra

Herriak txori honi eman dion izen sorta izugarri oparoak —azpizuria, gustalantxoria, apeztxoria, klabelin politta, pinpintortia, buztankara...— ez du aparteko azalpenik eskatzen: txori herritarra dugu, beraz, buztanikara zuria, ederki ezaguna.

Gustora asko ibiltzen da lurrean, eta saltoka mugitzen da, isatsa etengabe mugituz. Intsektu eta animalia txikiak ditu gustoko, eta bideak, ibai ertzak, baratzak, zelaiak bilatzen ditu horretarako, ezeri muzin egin gabe.

Askotan aberen ondoan aritzen da, bai haien inguruan dabilzan intsektuen bila, bai paraisito edo bizkarroiak kentzearen. Ez du erreparorik habiarako tokia aukeratzeko orduan, eta zuhaitzak, bideak, teilatuak, hormak, edozer du gustoko. Nafarroa osoan aurki daiteke, eta soilik mendi garaian, baso itxi edo toki lehorretan da urria. Horietariko asko gizakumeak betetzen dituen inguruetan bizi dira, eta oso ongi egokitzen dira bertan.

ANDER CLEMENTE

Bapatean, Jans esnatu egin da. Ameskaitz bat izan da esnatu duena. Gau ilun bat dago, eta ilargia betea da, borobilborobila dago. Pixka bat geroxeago, lokartu da berriz.

Jans, hogeitamabi urteko gizon bat da, ezkongai. Banaketxe batean lan egiten du. Ez da oso lagunkide, bere bizitza bakarrik bizitzea atsegin zaio. Zinemara joatea oso gustokoa du.

Rrrriiiiiinnnggg!!!! Iratzargailuak jo du. Goizeko 7.30ak dira. Jans, egunero bezala, ordu berean esnatu da. Kafea eta tostadak egiten ari diren bitartean, Jans dutxatzeraz doa. Ongi jantzi, gosalduta, eta egunkaria irakurri ondoren, lan egitera doa. Arratsaldeko 3retan, lan egitetik

Zergatik?

datorrenean, bazkaltzen du. Bazkaria gauean egiten du. Arratsaldetan, gauza asko egiten ditu: erostera joan, apurtutua dagoen zerbait

Jans gosaltzen ari zenean pentsatzen hasi zen zergatik deitzen diegun gauzei deitzen diegun bezala. Adibidez, zergatik mahaiari mahaia, oheari ohea, eta abar.

konpondu, irakurri, zinemara joan... eta abar.

Gaur igandea da, eta Jans oso nekaturik dagoenez, nahi-

ko berandu esnatu da. Gosaltzen ari zela pentsatzen hasi zen zergatik deitzen diegun gauzei deitzen diegun bezala. Adibidez, zergatik mahaiari, mahaia deitzen diegu. Zergatik oheari, ohea. Zergatik liburuari, liburuak, eta abar.

—Ba, ez. Nik beste modu batez deituko ditut:

Mahaiari, koadroa; koadroei, lan egin; oheari, egunkaria; aulkiari, gosaria; iratzargailuari, mahaia; lan egiteari, dutxa; egunkariari, aulkia; gosariari, iratzargailua; dutxatzeari, ohea, eta abar.

Horrela, hurrengo egunean, mahaiak jo zuen, egunkaririk altxa eta ohea zen. Gosarian eseri zen, koadroen ondoan. Aulkia irakurri ondoren, iratzargailua jan zuen. Gero, dutxatzeraz joan zen.

KAZKARROAN

A B D E G O R E R A S O
H I J K Z T I K S U M L
O P G R U S O T B D E F
M E N O B A B D O P R A
S T X U L Z N E L A Z I
A X D B A D A F G T H O
S A T L T B A D I S F Z
H L X U A F M R K E D T
L E U H S K R B A U A O
O K B P A U S H S T S K
K U M B S R I E N K Z S
Z A R R A N T Z G H R O

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Imotzko ibarra osatzen dituzten herrien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Latin hartu beharra ere izaten da.

Aldiz hitz gogorrak esan beharra izaten da.

Beramendi

Bi mutiko sendagilearengan joan ziren.

—Zer duzue?— sendagileak.

—Kristalezko kanika bat irentsi dut—erdi negarrez bateg.

—Ni kanika bila etorri naiz, nereea da eta—besteak.

Jenero Xumekoak

Euskal Gallera II

Ez dut sekula sos bat ere apostatu ez trabesetan ez demetan. Nik apostu eginez gero, orain aberatsa izanen nintzatekeen dudarik gabe, beti asmatu bait dut nor izanen den garaile, baina, ez dut sekula sos bat ere apostatu eta pena horrekin lan egin behar.

JEREMIAS ERRO

Bizi Bizian

Lakabe (Artzibar) kontzejuko zazpi hurrek, egunero, eskolara joateko lau kilometroko bidexka behorrez egiten dute, askotan oso baldintza gogorretan, beste biderik ez baitauka duela hamahiru urte bir-

populatu zen herrixka honek. Bi urte darama kontzejuak pista eske, baina hasieran Gobernuaren burokrazia eta ondoren arazo tekniko eta legalak zirela medio pistarik gabe segitzen dute hurrek.

Lakabe: malda gogorregia behorrez

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Mende honen hasierako istorioa dirudi, baina gaur egungo protagonistak ditu, eta errepide arloan Europaren mailara heldu nahi duen Nafarroa honetan gertatu da, autobide eta tunelen erresuman. Lakabe, onartu behar da, ez da herri normala, horretarako bidea hartua baldin badu ere, baina, berezitasunak berezitasun, bertan bizi direnen esanetan, «jadanik gertatzen ez diren horietako ipuina ematen du gureak».

Dena 1990eko neguan hasi zen, lakabearrek pista bat edukitzeko garaia heldua zela erabaki zutenean. Ordura arte, beti mandoz eta behorrez egin zuten Agoitzera daraman errepiderainoko bidea, baina arazoa hurrekin sortu zen, egunero klasera joan beharrekin. Zazpi dira egun lau kilometroko bidexka egunero egiten dutenak, ordu bete inguruz, malda handien artean, eta eguraldi gogorrean inolako babesik gabe. Horrek, eguraldia gorabehera, nekea eta oztopo franko sortzen ditu 4 eta 10 urte bitarteko haur hauen heziketa normalerako. Izan ere, egunero goizeko 9.30etan egon ahal izateko ordu bete t'erdiko bidaia dute, eta arratsaldeko 6ak arte ez dira etxera itzultzen.

Hori dela eta, Lakabek pista bat eskatu zuen aipatu garaian. Adituen lehendabiziko aurrekontuarekin Nafarroako Gobernura jo zuten, eta hor hasi ziren komeriak. «Lehendabizi Mendi Departamentua izan zen —azaldu dute—, hortik Administrazio Lokalera bidali gintuzten, eta geogo Bideak Sailera. Inork ez zigun erantzunik eman. 91 osoa alde batetik bestera eman genuen, bulegoz bulego. Dena alferrik». Bitartean, hurrek ikasurte osoa hasi eta amaitu egin zuten. Agoizko San Migel Eskualdeko Ikastetxe Publikoko arduradunen protestaldiak ere eragin zituen egoerak. «Ez dut uste

—azaldu zuen zuzendariak Hezkuntza Departamentura igorritako eskutitz batean— haur hauen eguneroko erritmoa guk, helduok, jasan genezakeenik».

leen oporrak eta berriro ekin ziotenean, makina izorratu egin zitzaizen. Hurrek, bitartean, klaseak hasi eta udazkena inoiz baino gogorragoa suertatu zen: izo-



1992ko ekainean gauzak konpontzeko bidean daudela dirudi. Mendiak Sailak bere gain hartu zuen ardura, eta beste bide bat agindu pistarako. Hasieran, oposizioa sortu zuen proiektuak lakabearren artean, haiek proposatutakoa bi kilometroko pista baitzen eta berria zortzi kilometrokoa, altuagoa eta izotzaren arrisku handiagorekin. Ez dago, baina, konponbiderik, pista laburra gogorregia delako, eta kontzejuak uztailean onartu egin zuen Gobernuaren proiektua.

Abuztuaren 6an makina bat azaldu zen, eta bost egun beranduago, langilea. Lanean hasi ziren baina berehala harri multzo batek oztopatu zuen bidea. Egun batzuk pasa ondoren, beste ibilbidea aukeratu zuten, eta lanean berriro. Irailarekin batera, langi-

tza, elurra, euria eta euria. Egunero behorren gainean. Lanak ez ziren hasten, eta orduan traba sorta berria sortu zen. Pista ilegala omen da, Artze eta Munaingo mugen artean arazoak daude, eta ez dira behar diren baimenak eskatu. Ingurugiro Sailak ere ez du bere txostena egin...

Eta lakabearrak etsita. «Bi hilabetetan ez da ezer mugitzen, eta isiltasuna da jaso dugun erantzun bakarra. 92 famatua amaitu da, eta berarekin batera gure pazientzia. Bi kilometroko bidexka berria baino ez dugu nahi, igotzeko gogorra bada ere».

Lakabearrek ez dute etsi nahi. Orain arte oztopo ugari izan dituzte, baina egoerari irtenbidea eman behar zaiola uste dute. Horretarako lanean jarraituko dute, ezin bait dute horrela jarraitu.



● Egunero bi aldiz egin behar dute lau kilometroko bidea hurrek, behorrez edo oinez eta askotan eguraldi txarrarekin. Eskatzen duten pistarekin furgoneta erabil lezaket.

PISTA PROIEKTUAK LAKABE INGURUAN



I.MARTIARENA

Utopiaren amaiera?

Lakabe herrixkan 22 lagun bizi dira egun —12 heldu eta 10 haur—, eta beren ganadua, lurra eta Iruñean saltzen duten ogiarekin eta besterekin egiten dute aurrera. Herri deslaxa zen Lakabe bertara utopiko talde bat heldu eta bereganatu zuen arte. Nafarroako toki frankotan gertatu den bezala, jatorrizko bizilagunek txakur bat bere kateari lotuta bezala utzi zuten ordurarteko bitotokia, inor berataz arduratu ezean luze ez zuela iraungo jakinik ere.

Eta heldu zirenak arduratu ziren txakurraz, eta herria, ordurako arrailtzen hasia, berreraiki egin zuten. Utopien garaia —'utopia' hitza egia bihurtzeari beldurra diotenen bakarrik erabiltzen dute—

zen orduan, eta Lakabe, askorendako, amestutako esperientzien laborategi moduko bat zen.

Jende asko pasa da bertatik urte hauetan guztietan, baina orain daudenek bertan gelditzeko asmo tinkoa omen dute. Bide berriak, baina, etorkizun berria ekarriko dio herriari, eta horren jabe izanik, ez da horri buruzko eztabaidarik falta bizilagunen artean. Errepidea egitearen alde azaldu dira azkenean, baina eztabaida bera erabakiaren garrantziaren lekukoa da. Litekeena da Lakabek herri 'normal' baten itxura hartzea; hori, azken finean, lakabearren esku baitago. Nolanahi dela ere, batzuek uste izango dute utopia amaitu dela.

Hiru lternatiba daude pista egiteko, aina hirurek geldirik diraute egun. Lakabekoek Artozki ondora helduko den bidea eskatzen dute, laburrena delako (2 kilometro), baina teknika-riek gogorregia zelakoan baztertu egin zuten. Lehendabiziko proiektuak —Uritzerainokoa—, baina, huts egin zuen, harresia aurkitu zutelako eta bigarrenak —Usotzerainokoa— Munain eta Artzeren arteko muga legalekin egin du topo.

Unai Garbisu

.....xake jokalaria

«Ez dut maisurik izan»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Noiz eta nola hasi zinen xakean jokatzen?

UNAI GARBISU.— Hamar urtekin nire aitarekin hasi nintzen jokatzen; xake joko txiki batekin, eta orduan ikasi nituen jokoaren arauak. Nire auzoan bazegoen xake klub bat, eta bertan nire lehen urratsak eman nituen. Duela urte batzuk Eguberrietako lehen txapelketa antolatu zuten Iruñean, eta nik nire lehen txapelketa jokatu nuen orduan, txapelketa irekian. Gero Nafarroako txapelketa nagusian hartu nuen parte, eta harrezkerotik garapen azkarra izan du nire jokoak.

EGUNKARIA.— Jakin dugunez, orain arte ez duzu xake irakaslerik izan, eta zure kabuz garatu duzu zure jokoak.

GARBISU.— Egia esateko nik partiduak jokatzen ikasi dut. Auzoko klubean edonoren kontra jokatzen nuen, xakea asko gustatzen zitzaidalako. Ni baino trebeagoak zirenen kontra jokatzen nuen eta horiei esker, pixkanaka-pixkanaka estilo propio bat garatu dut. Ez dut maisurik izan orain arte, baina egun, Nafarroako Xake Federazioari esker, Jesus de la Villa nazioarteko maisuarekin egiten dut lan.

EGUNKARIA.— Alvaro Ablanedo Xake Federazioeko presidentek dioenez, dagoeneko Nafarroako jokalaririk hobereena zara, eta aurrerantzean gauza asko lor ditzakezu.

GARBISU.— Eskertzen diot, baina hori gehiegi

Ni baino trebeagoak zirenen kontra jokatzen nuen, eta horiei esker pixkanaka-pixkanaka estilo propio bat garatu dut, maisurik gabe. Partidak jokatuz ikasi dut xakean.

esatea dela uste dut. Egun nazioarteko xake sailkapenean sartzeaz nago. Bertan sartzeko jadanik sailkapen horretan dauden maisuen kontra emaitza onak lortu behar dituzu. Aurki plaza-ratuko duten sailkapenean 2.255 ELO ditut. Ez dira puntu asko hasteko, baina garrantzitsuena egun emaitza onak lortzea da, puntuazio hori hobetu ahal izateko. Dena den, niretzat garrantzitsuena ikasketak dira, UBI aprobatazea eta datorren urtean Unibertsitatean hastea hain zuzen ere.

EGUNKARIA.— Profesionaltasuna urrun ikusten al duzu?


GARBISU.— Bai. Ekialdeko mugak irekitzeak profesionaltasuna gauza askoz zailagoa bilakatu du. Jokalari atzerritarrek diru gutxiago eskatzen dute, eta txapelketetako ordainsariak gero eta txikiagoak dira. Futboleko edo saskibaloian jokatzen onaz bazara, erraza da horretaz bizitzea, baina xakean jokatzeaz bizitzea oso zaila da. Estatu osoan hamar edo hamabost lagunek besterik ez dute hori lortu.

EGUNKARIA.— Egunean zenbat ordu ematen dituzu entrenatzen?

GARBISU.— Xake jokalaria profesionalak egunero zortzi ordu baino gehiago ematen dituzte lanean, baina nik ez. Txapelketa bat jokatzeaz nagoenean partidua irekitzeko era ezberdinak berrikusten ditut, orduan egunero ordubete pasatzen dut xakearekin. Txapelketarik jokatu behar ez dudanean ez dut egunero jokatzen,

eta etorkizun handikoa gainera. Hilabete honetan lehendabizikoz agertuko da nazioarteko xake jokalarien sailkapenean. Jokalari gazteari sailkapen horretan maisua den Karpoven urratsei jarraitzea gustatuko litzaioke.

eta etorkizun handikoa gainera. Hilabete honetan lehendabizikoz agertuko da nazioarteko xake jokalarien sailkapenean. Jokalari gazteari sailkapen horretan maisua den Karpoven urratsei jarraitzea gustatuko litzaioke.



Iruñean jokatzen ari den Xake Txapelketan parte hartu du. LACALLE

eta entrenamendu fijo bakarra daukat. Asteaz behin, astelehenean hain zuzen ere, Jesus de la Villarekin lau orduz entrenatzen dugu eta orduan bai, bete-betean egiten dugu lan denbora aprobe-txatzeko. Nahiago dugu entrenamendua egun batean egin, ikasketek denbora franko kentzen digutelako.

EGUNKARIA.— Ez al zara xake jokalaria bezain ikasle ona?

GARBISU.— Ez, inondik inora ez.

EGUNKARIA.— Beste kirol ba-

tzetan gertatzen den bezala, xakean gazteak ederki ari dira azken urteetan. Iruñeko Hiria txapelketan jokatu duen Kramnik, esate baterako, zure adinekoa da eta adituek aurki munduko txapel-duna izanen dela diote. Zer gertatzen ari da?

GARBISU.— Jendeari xakea gero eta gehiago gustatzen zaio, eta hori dela eta jokalaria trebeak sortzen ari dira. Iraganeko jokalaria onak noizbehinka ateratzen ziren, eta egun Kramnik, Lautier

Niretzat garrantzitsuena ikasketak dira, UBI aprobatazea eta Unibertsitatean hastea. Xake jokalaria profesionala izatea oso gauza zaila da, eta banaka batzuek soilik lortzen dute.

eta Kramski gazteak munduko sailkapenean puntaren puntan dabilta, eta edonoz munduko txapela eskura dezakete.

EGUNKARIA.— Jokatzen dituzun txapelketetan zu baino askoz zaharragoak diren jokalaria izaten dituzu aurrez aurre. Zer moduz moldatzen zara zu, eta zer moduz moldatzen dira haiek?

GARBISU.— Hasieran gaizki moldatzen nintzen, baina dagoeneko ez naiz urduri jartzen. Haiei batzuetan asko kostatzen zaie gaztetxo batek garaitu dituela onartzea, baina dagoeneko ezagutzen naute, eta nire aurka jokatzea normaltzat jotzen dutela uste dut.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira gehien miresten dituzun jokalaria-riak?

GARBISU.— Karpov asko gustatzen zait, eta Kramnik baita ere, Iruñeko txapelketan oso ongi aritu ez bada ere.

EGUNKARIA.— Zertan datza zure ustez xakearen erakargarritasuna?

GARBISU.— Xakea eguneroko erritmo azkarratik alde egiteko bide bat da. Lagunartean ongi pasatzeko joko egokia da, eta aldi berean adimena lantzeko era dibertigarria, eta adimena lantzea inoiz ez dator gaizki.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

